



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango

**DURANGALDEKO NAGUSIEN
ETXEAK COVID-19AREN
ONDOREN BERRIZ
IREKITZEKO ETA
BERRAKTIBATZEKO
PROTOKOLOA
2020 MAIATZA**

COVID-19ak eragindako osasun larrialdiaren ondorioz, nagusien etxeak itxita egon dira azken hilabeteetan. Orain, egoerak hoberrantz egin duenez, normalitatera itzultzeko pausuak eman beharra dago; betiere Gobernuak eta osasun agintariek ezarritako arauak kontuan hartuta. Hori horrela, Durangaldeko nagusien egoitzak pixkanaka ireki ahal izateko **proposamena** landu da dokumentu honetan; horretarako, Osakidetzak koronabirusaren hedapena saihesteko zehaztutako neurriak hartu dira oinarri.

Proposamenean nagusien etxeak ireki ahal izateko hartu beharreko neurriak ageri dira; banakakoak, taldekakoak eta antolaketa mailakoak. Horien helburua bikoitza da: alde batetik, kutsatzei aurrea hartzea; bestetik, kasuren bat gertatuz gero, egoerari erantzuna ematea.

Ondorengo hauek izan beharko dira proposamenaren ezaugarriak:

- **Gardena:** bai zentroetako langileei eta bai erabiltzaileei proposamenaren berri emango zaie.
- **Integrala:** zentroko espazio, prozesu eta pertsona guztiengan izango du eragina.
- **Segurua eta fidagarria:** osasun agintaritzaren gomendioak bete beharko ditu, eta hala badagokio, horren baimena ere izan beharko du.

Proposamen hau COVID-19ak sortutako egoera honetan laguntza emateko oinarritzko tresna gisa sortu da, eta udalei dagokie baloratu eta martxan jartzea. Baliagarria izatea espero dugu.

1. BARRUAN HARTU BEHARREKO NEURRI OROKORRAK

- Barruko edozein jarduerari ekin **AURRETIK**, zentroa erabat **garbitu eta desinfektatuko** da.
- Osasun agintariak COVID-19aren hedapenari aurre egiteko ezarritako higiene eta babes neurriak bete beharko dira. Langile eta erabiltzaileei hori jakinarazteko eta gogorazteko, **kartelak** jarriko dira zentroetan.
- Laneko espazio eta gainazalen garbiketa areagotuko da eta zentroa egunero **garbitu eta desinfektatutako** da (produktu egokiak erabiliko dira, desinfekzioa iraunkorra izan dadin).
- Asko ukitzen diren gainazalak (mostradoreak, mahaiak, aulkiak, ile apainketa, podologia edo bestelako zerbitzuetako materialak...) eta behin eta berriz erabiltzen diren elementuak behar adina aldiz garbitu eta desinfektatuko dira.
- Instalazioak **aireztatu** egingo dira: erabili ostean beti, eta gutxienez, egunean bi aldiz (sartzean eta irtetzean).
- **Soluzio hidroalkoholiko banagailuak** jarriko dira zentroko hainbat gunetan (kafetegian, bulegoetan, aretoetan...).
- **Xaboi-banagailuak** eta **paperezko eskuoihal-banagailuak** hornituta egongo dira beti.
- Komunak **desinfektatuta mantentzeko**, gomendagarria da horiek giltzaz ixtea; modu horretan, garbitzaileak sartu-irtenak kontrolatu eta **erabilera bakoitzaren ostean** desinfektatu ahal izango ditu. Hori bermatu ezin bada, komunak itxi egingo dira aldi baterako.
- **Aire girotua** erabiltzea debekatuko da.
- **Hondakinen kudeaketa**. Paperontzien ordez, tapa eta pedaldun edukiontziak jarriko dira

2. BABES NEURRI OROKORRAK

- Segurtasun distantzia bermatzeko beharrezkoa bada, **marka eta bereizgarriak** jarriko dira lurzoruan.
- Uneoro bermatuko da gomendatutako **personen arteko distantzia** (2m); bai langileen artean eta bai kanpotik etorritako pertsonak artatzean ere.
- **Erabiltzaileek derrigorrez jantzi beharko dute maskara, baita adinekoei zerbitzua ematen dioten langileek ere** (kafetegiko arduradunek, podologoek, ile apaintzaileek, garbitzaileek, begirale eta irakasleek...).
- Arreta ematean, zentro barruko joan-etorrietan eta bileretan ere derrigorrezkoa izango da maskara jantzea, betiere ezin bada bi metroko distantzia mantendu. Dena dela, distantzia mantetzea posible izan arren, gomendagarria da maskara erabiltzea.
- Unean uneko araudiak baimendutako gehienezko edukiera errespetatuko da beti.
- Podologia zerbitzuko eta ileapaindegi zerbitzuko langileek aurpegia babesteko bisera jantzi beharko dute.

3. BARNE ANTOLAKETAN HARTU BEHARREKO NEURRIAK

3.A. ZERBITZUETAKO ARDURADUNAK (garbiketa, kafetegi zerbitzua, ile apainketa, podologia...):

- Lankideak, erabiltzaileak zein hornitzaileak agurtzean, kontaktu fisikoa saihestuko da.
- Zentroan sartzean eskuak garbituko dira, baita erabiltzaileekin kontaktua izan aurretik eta ostean ere.
- Profesional bakoitzak bere materiala erabiliko du, beste inorekin partekatu barik.
- Objektu pertsonalak (betaurrekoak, mugikorrak...) sarritan desinfektatuko dira soluzio hidroalkoholikoarekin edo, posible denean, urarekin eta xaboiarekin.
- Funtsezkoak ez diren joan-etorriak eta lekualdatzeak saihestuko dira.
- Garbiketako langileei lana errazteko, langile bakoitzak, laneguna bukatutakoan, bere lan eremua ahalik eta gehien ordenatu eta hustuko du.
- Aurrez aurreko arretarako, aurretiazko hitzordua hartuko da (kafetegian izan ezik). Hitzorduak mailakatuak izango dira, aldi berean pertsona bat baino gehiago batu ez daitezen.
- Langileek, lanera joan aurretik, tenperatura hartuko dute etxean, eta COVID-19arekin lotuta egon daitekeen sintomaren bat izanez gero, ez dira lanera joango.

3.B. ERABILTZAILEAK:

- Kutsatzeak saihesteko, **norberak zentrorra etorri aurretik hartu beharreko neurrien berri** emango zaie; hala nola, tenperatura hartzea eta COVID-19arekin lotuta egon daitekeen sintomaren bat izanez gero, etxean geratzea.
- Zentrorra **maskara** jantzita etorriko dira.
- Sartzean eta irtetzean, eskuak garbituko dituzte.

3.C. EKINTZAK (bilerak, ikastaroak, tailerrak, zerbitzuak...)

Ahal dela, lehenasuna emango zaie jarduera telematikoei; baina zentroak ekintzaren bat eginez gero, ondorengo neurri hauek hartu beharko dira:

- Jende pilaketak eta pertsonen arteko kontaktuak saihesteko, itxarongelak eta elkarguneak ez dira erabilgarri egongo.
- Itxaronaldiak saihesteko, ekintzetako parte-hartzaileak puntualak izango dira; hau da, ez dira ez lehenago ez beranduago helduko.
- Ahal den neurrian, zentrorra banan banan sartu beharko da, eta laguntzera datorren pertsona kanpoan geratuko da.

- Segurtasun eta babes neurriak bermatzeko, taldeen antolaketa aldatu egingo da, eta talde programetan, gehieneko pertsona kopuru jakin bateko taldeak eratuko dira (unean uneko araudiak ezarritakoaren arabera).
- Ileapainketa zerbitzuan, podologia zerbitzuan edo bestelako zerbitzuetan, langile bakoitzak bere materialak erabiliko ditu, eta ahal dela, erabili eta botatzekoak izango dira (eskuoihalak, eskuohearako papera...). Horrez gain, profesional bakoitza arduratuko da bere hondakinak plastikozko poltsa itxietan biltzeaz.
- Ileapainketa zerbitzuko eta podologia zerbitzuko profesional bakoitzak plastikozko poltsa bat emango dio erabiltzaileari, bere gauzak bertan sartzeko (poltsa, jaka, zapatak...). Bukatutakoan, erabiltzailea arduratuko da poltsa hori botatzeaz.
- Ez da konpartitzeko material suntsikorrik erabiliko (arkatzak, boligrafoak, pilotak, zintak...).
- Higiene neurriak direla eta, EZ da gomendagarria mahai-jokoak erabiltzea (kartak, dominoa...); izan ere, joko horietan ohikoa da materialak konpartitzea. Hori horrela, COVID-19ak eragindako egoerak iraun bitartean, egoitzak EZ du jokorako materialik utziko.
- Talde jardueren artean tarte bat utziko da, bai aretoa garbitu eta desinfektatzeko, eta bai erabiltzaileek sartzean eta irtetzean topo egitea saihesteko.
- Kafetegi, ile apainketa eta podologia zerbitzuek, unean uneko araudia bete beharko dute, erabiltzaileen segurtasuna bermatuz.

4. EPEAK ETA GOMENDIOAK

Zentroak pixkanaka zabaldu eta jende pilaketak saihesteko, AURRETIAZKO HITZORDU bidez funtzionatzen duten zerbitzuak ematen hastea da gomendioa (ile apainketa eta podologia); betiere, orain arte aipatutako neurriak betez.

Talde txikietan (gaur egun 15 pertsona) egiten diren jarduerak edo programak ere berrabiarazi ahal izango dira, betiere segurtasun neurriak bermatuz.

Ostalaritzarako indarrean dagoen araudia betez gero, kafetegi zerbitzua martxan jarri ahal izango da.

5. BESTERIK:

Jende pilaketak saihestu eta pertsona nagusiei zentrora sartzeari errazteko, **ZERBITZU EDO JARDUERA BAKOITZAREN ORDUTEGIA ETA IREKIERA ETA ITXIERA ORDUTEGIA BERRANTOLATZEA** da proposamena.